



OSASUN SAILA
(Euskal osasun zerbitzua)

.@@@4244/2008 EBAZPENA, azaroaren 28koa, Osakidetzako zuzendari nagusiarena. Ebazpen honen bidez onartzen dira Erradiodiagnostikoko teknikari espezialisten kategorian Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuan lotura estatutario finkoa lortzeko hautatze probak arautuko dituzten oinarri espezifikoak. Aipatu kategorია osasun teknikari espezialisten lanbide taldekoa da eta destinoak Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko erakundeetakoak izango dira.

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 28ko 4235/2008 EBAZPENAREN bidez onartzen dira Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuan lotura estatutario finkoa lortzeko hautatze probak arautuko dituzten oinarri orokorrak.

Hautatze prozesu bakoitza gauzatzeko beharrezkoa da kategoría bakoitzeko destinoak arautuko dituzten oinarri espezifikoak argitaratzea eta bertan zehaztuko dira eskaintzen den destino bakoitzeko ezaugarri bereziak.

Hori dela eta, bat etorri Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legeak, Osasun zerbitzuetako pertsonal estatutarioaren Estatutu Markoaren abenduaren 16ko 55/2003 Legeak, Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatuaren apirilaren 12ko 7/2007 Legeak, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuak eta Osakidetza Ente Publikoko Estatutu Sozialak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuak, eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenek ezarritakoarekin, eta arlo honetako sindikatuei entzun ondoren, honako hau,

EBATZI DUT:

Lehenengo.- Oinarri hauen xedea diren hautatze probak deitzea.

Bigarrena.- Osasun teknikari espezialisten lanbide taldeko Erradiodiagnostikoko teknikari espezialisten kategorian lotura estatutario finkoa lortzeko hautatze probak arautuko dituzten oinarri espezifikoak onartzea, I. eranskinean agertzen direnak.

Hirugarrena.- Ebazpen honekin batera agertzen den II. eranskinaren bidez eskainitako destinoen erlazioa onartzea.

Laugarrena.- Merezimenduen baremoa onartzea, ebazpen honen III. eranskinean dagoena.


Bosgarrena.- Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua jar dakioko Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Administrazio Kontseiluari hilabeteko epearen barruan, ebazpena EHAAN



Osakidetza

argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, hala ezartzen baitute lege eta dekretu hauek: azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Jardunbide Erkidearen 30/1992 Legeak, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatutakoak; ekainaren 26ko Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren 8/1997 Legeak eta azaroaren 11ko Osakidetzaren Estatutu Sozialak ezartzen dituen 255/1997 Dekretuak.

Vitoria-Gasteizen, 2008ko azaroaren 28an.



Osakidetza-Euskal Osasun zerbitzuko Zuzendari Nagusia.-
GLORIA QUESADA MENENDEZ.



DEPARTAMENTO DE SANIDAD
(Servicio vasco de salud)

.@@@RESOLUCIÓN 4244/2008, de 28 de noviembre, de la Directora General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, por la que se aprueban las bases específicas que han de regir el proceso selectivo para la adquisición del vínculo estatutario fijo en la categoría de Técnico especialista Radiodiagnóstico del Grupo Profesional de Técnicos especialistas Sanitarios con destino en las organizaciones de servicios sanitarios de Osakidetza-Servicio vasco de salud.@@@

Mediante Resolución 4235/2008, de 28 de noviembre, de la Directora General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, se aprueban las bases generales que han de regir los procesos selectivos para la adquisición del vínculo estatutario fijo en Osakidetza-Servicio vasco de salud.

Para la materialización de cada proceso selectivo es necesaria la publicación de las bases específicas que han de regir la convocatoria de destinos de cada categoría, en la que se especifiquen las características particulares de cada uno de los destinos ofertados.

Por ello, de conformidad con lo establecido en la Ley 8/1997, de 26 de junio de Ordenación Sanitaria de Euskadi, la Ley 55/2003, de 16 de diciembre, del Estatuto Marco del personal estatutario de los servicios de salud, la Ley 7/2007, de 12 de abril, del Estatuto Básico del Empleado Público, el Decreto 186/2005, de 19 de julio, que regula los puestos funcionales del Ente Público Osakidetza-Servicio vasco de salud, y en el Decreto 255/1997, de 11 de noviembre, por el que se establecen los Estatutos Sociales del Ente Público Osakidetza-Servicio vasco de salud, y demás disposiciones de vigente aplicación, y oídas las Organizaciones Sindicales del Sector,

RESUELVO:

Primero.- Convocar las pruebas selectivas que son objeto de las presentes bases.

Segundo.- Aprobar las bases específicas, que figuran como Anexo I, que han de regir el proceso selectivo para la adquisición del vínculo estatutario fijo en la categoría de Técnico especialista Radiodiagnóstico del Grupo Profesional de Técnicos especialistas Sanitarios.

Tercero.- Aprobar la relación de destinos ofertados mediante el Anexo II que acompaña a la presente Resolución.

Cuarto.- Aprobar el baremo de méritos que figura como Anexo III de la presente Resolución.



Cuarto.- Aprobar el baremo de méritos que figura como Anexo III de la presente Resolución.

Quinto.- De acuerdo con lo establecido en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, modificada por Ley 4/1999, de 13 de enero, y en la Ley 8/1997, de 26 de junio, de Ordenación Sanitaria de Euskadi, así como en el Decreto 255/1997, de 11 de noviembre, por el que se establecen los Estatutos Sociales de Osakidetza, contra esta Resolución podrá ser interpuesto recurso de alzada ante el Consejo de Administración de Osakidetza-Servicio vasco de salud, en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de su publicación en el BOPV.

En Vitoria-Gasteiz, a 28 de noviembre de 2008.

Directora General de Osakidetza-Servicio vasco de salud.-
GLORIA QUESADA MENÉNDEZ

I. ERANSKINA

ERRADIODIAGNOSTIKOKO TEKNIKARI ESPEZIALISTAREN KATEGORIAN OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUAN LOTURA ESTATUTARIO FINKOA LORTZEKO HAUTATZE PROZESUA ARAUTUKO DUTEN OINARRI ESPEZIFIKOAK. AIPATU KATEGORIA OSASUN TEKNIKARI ESPEZIALISTEN LANBIDE TALDEKOA DA ETA DESTINOAK OSAKIDETZAKO-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ERAKUNDEETAN IZANGO DIRA.

1.- DEIALDI HONETAN ESKAINTZEN DIREN DESTINOAK.

1.1.- Deialdi honen xede izango dira osasun teknikari espezialisten lanbide taldeko Erradiodiagnostikoko teknikari espezialistaren kategoriako destinoak, destinoa Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko erakundeetan dutenak. Destino horiek lekualdatze-lehiaketan eskaini direnez, horien kopurua eta ezaugarriak aldatu ahal dira lehiaketa hori erabaki ahala.

Era berean, deialdi honen xede izango dira prozesu hau arautzen duten oinarri orokorren 1. oinarrian zehazten diren destinoak.

1.2.- Deitutako destinoen %5 pertsonal ezinduak betetzeko gordeko da. Oinarri orokorren arabera eskaini daitezkeen destinoak behin betiko zehazten direnean erabakiko da zenbatekoa den kopuru hori.

2.- IZANGAIEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK:

Izangaiek ebazpen honetan arautzen den deialdian parte har dezaten, eskabideak aurkezteko epearen azken egunean oinarri orokorretan eskatzen diren baldintzez gain, beste hauek ere bete beharko dituzte, oinarri orokorretan jasotzen diren salbuespenak izan ezik, eta, kasua bada destinoa esleitzen dela, destinoaz jabetu arte mantendu behar dituzte:

a) Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak emandako Diagnostikorako Irudian Goi Mailako Teknikari titulazioa edo baliokidea izatea edo izateko moduan egotea, Osakidetza Zuzenbide Pribatuko Entitate Publikoaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuaren I. eranskinean zehaztutakoa betez.

b) Edozein kasutan ere, lortu nahi den lanpostuaren baldintzak bete behar dira, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua Ente Publikoaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuak ezarritakoaren arabera eta indarrean dagoen araudiak ezarritako beste edozeinen arabera.

3.- LEHIAKETA OPOSIZIOAREN NONDIK NORAKOA.

3.1.- Oposizioaldia.

Epaimahaiari dagokio probaren edukia eta iraupena zehaztea. Galdetegi bati idatziz erantzun beharko zaio, ematen den gehieneko denboraren barruan. Galdetegi hori galdera-bateria itxia izango da eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuak izangaien eskura jarriko du eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan.

3.2.- Oinarri orokorretako 14. atalean ezarritako puntuazio-ordenaren arabera zerrenda argitaratutakoan, 14.2 oinarrian jasotzen den dokumentazioaz gain ondorengo hau ere aurkeztu beharko dute izangaiak:

- Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak emandako Diagnostikorako Irudian Goi Mailako teknikari titulazioaren edo baliokidearen fotokopia konpultsatua edo notarioaren testigantza, Osakidetza Zuzenbide Pribatuko Entitate Publikoaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuaren I. eranskinean zehaztutakoa betez.

3.3.- Lehiaketaldia.

Egiaztatutako merezimenduak honekin batera doan III. Eranskinean agertzen den merezimenduen baremoaren arabera balioztatuko dira, baldin eta web orrian bete beharreko ereduak alegatu izan badira.

4.- 1984KO EKAINAREN 14A BAINO LEHENAGOTIK TEKNIKARI ESPEZIALISTAREN ZERBITZUAK ESKAINTZEN DITUEN ERIZAINZAKO LAGUNTAILEA.

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuan Erizaintzako laguntzailearen lanpostua jabetzan izanik, 1984ko ekainaren 14 baino lehenagotik osasun teknikari espezialistaren zerbitzuak eskaintzen dituzten langileek, eskaerak aurkezteko epeko azken egunean dagokion espezialitateko osasun teknikari espezialista titulua badute, hautaketa prozesu honetan parte hartu ahalko dute atal honetako sarbide-modalitatearen bidez, baldin eta baldintza orokorretan aipatzen diren baldintza orokorrak betetzeaz gain, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuan aktiboan edo zerbitzu berezietan badaude beren jatorriko kategorian.

Sarbide-modalitate honetan lehiatu nahi dutenek espresuki utzi behar dute hori jasota dagokion eskabidean. Akatsen bat dela eta, izangairen batek modalitate honetan zein txanda irekian parte hartzea eskatzen badu, eta gero dokumentazioa aurkezteko fasean dagokion egiaztapena egiteari utzi gabe, bere eskaera automatikoki modalitate honetara igaroko da, baldin eta horretarako legezko baldintzak betetzen baditu.

Atal honetan araututako pertsonalak estatutarioaren izaera lortzen badu Goi-Teknikarien kategorian, espezialitate sanitario desberdinetan, sarbide-modalitate honetan parte hartzen dueneko destinoa finkatuko du, eta hartara atxikita geratuko da behin betikoz dagokion espezialitateko osasuneko goi mailako teknikarien kategorian.

II. ERANSKINA

DESTINOEN ZERRENDA KATEGORIA: ERRADIODIAGNOSTIKOKO TEKNIKARI
ESPEZIALISTA

Osakidetzako zuzendari nagusiaren azaroaren 28ko 4235/2008 Ebazpen bidez onartutako oinarri orokorretako 1.1. oinarriaren lehen atalean aurreikusitakoaren arabera, 20 destino deitzen dira.

Oinarri horrekin bat, hautatze-prozesua gainditu duten izangaien zerrenda argitaratu baino lehen egingo da eskaini daitezkeen destinoen behin betiko zehaztapena.

III. ERANSKINA

OSASUN TEKNIKARI ESPEZIALISTEN LANBIDE TALDEKO
ERRADIODIAGNOSTIKOKO TEKNIKARI ESPEZIALISTA KATEGORIAKO
MEREZIMENDUEN BAREMOA

1) LAN ESPERIENZIA (gehienez, 55 puntu).

Eskabideak aurkezteko azken egunera arte izangaiek aitortuta duten zerbitzu-denbora zenbatuko da.

1.- Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Osasun Zerbitzuetako, Gizarte Segurantzako edo Komunitate Autonomoetako Osasun Zerbitzuetako edo herri administrazioetako edozein erakundetan dagokion espezialitatean teknikari espezialista gisa emandako zerbitzuen hilabete bakoitzeko, Europako Batasuneko kide diren gainerako estatueta sare publikoko osasun zerbitzuetan emandako zerbitzuak barne: 0,30 puntu.

Guztizko denbora zenbatzeko orduan, lan egindako egun naturalak hartuko dira kontuan, eta ez dira zenbatuko hilabetera heltzen ez diren gainerako egunak. Hilabetea osatzeko, 30 egun naturaleko multzoa hartuko da.

Barne-sustapeneko txandan lehiatzen direnei, honela zenbatuko zaizkie eskainitako aurretiko zerbitzuak:

a) E taldean eskainitako zerbitzuak: 0,10 puntu hilabete bakoitzeko.

b) D taldean eskainitako zerbitzuak: 0,12 puntu hilabete bakoitzeko.

c) C taldean eskainitako zerbitzuak: 0,19 puntu hilabete bakoitzeko.

d) Lehiatzen den lanpostu berean egindako zerbitzuak: 0,30 puntu hilabete bakoitzeko.

Zerbitzu eginkizunetan edo goragoko kategoriako funtzioetan eskainitako zerbitzuak benetan betetako lanpostuan zenbatuko dira.

Halaber, zerbitzu berezietako egoeran eskainitako zerbitzuak jatorrizko lanpostuan zenbatuko dira.

2) PRESTAKUNTZA, IRAKASKUNTZA ETA IKERKUNTZA (gehienez, 15 puntu).

a) Graduatu aurreko prestakuntza (gehienez, 6 puntu):

Dagokion espezialitatean teknikari espezialistaren ikasketetan edo baliokidetasun ateratako ohorezko matrikula edo

bikain bakoitzeko (honako gai hauetan ateratakoak ez dira kontuan hartuko: erlijioa, etika, heziera politikoa, heziketa fisikoa eta hizkuntza):

- Ohorezko matrikula bakoitzeko: 06 puntu
- Bikain bakoitzeko: 0,4 puntu

d) Etengabeko prestakuntza (gehienez, 15 puntu):

Eskatutako destinoko kategoriarekin zerikusia duten ikastaroetara joateagatik:

- 9 ordura arte: 0,25 puntu
- 10-19 ordu: 0,50 puntu
- 20-29 ordu: puntu 1
- 30-49 ordu: 1,50 puntu
- 50-99 ordu: 2 puntu
- 100-199 ordu: 3 puntu
- 200 ordu edo gehiago: 4 puntu.

Ikastaroen ziurtagirietan kreditu kopurua bakarrik agertzen denean, puntuazioa 0,50 puntukoa izango da kreditu bakoitzeko.

Gutxieneko ordu-kopurua adierazten ez duten ziurtagirietan edo prestakuntza ematen duen administrazio publikoak onartutako kredituen baliokidetzaren orduetan jasotzen ez dutenetan, edo ordu-kopurua nahiz kreditu-kopurua jasotzen dutenetan, epaimahaiak dagokion puntuazioa emango du, aurkeztutako dokumentazio eta ikastaroaren edukiaren arabera. Puntuazio hori ezin izango da inoiz 0,25 puntutik beherakoa izan.

Hurrengo hauek ematen dituzten ikastaroak bakarrik hartuko dira kontuan: erakunde ofizialek, unibertsitateek, erakunde sanitarioek, elkargo profesionalek eta elkarte zientifikoek. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak hitzartutako etengabeko prestakuntzako akordioaren arabera eman eta egiaztatutako ikastaroak ere baloratuko dira, beti ere titulazio ofiziala lortzeko ikasketaren plan baten barrukoak ez badira.

e) Irakaslanak (gehienez 5 puntu):

Irakaskuntza etengabeko prestakuntza ofizialetako programetan (ordu bakoitzeko): 0,025 puntu

f) Jarduera zientifikoak eta ezagutza hedatzekoak (gehienez, 5 puntu):

Eskatutako destinoko lanpostu funtzionalarekin zerikusia duten lan zientifikoak, txosten-aurkezpenak, komunikazioak, hitzaldiak edo mahai-inguruak egiteagatik:

- Txosten bakoitzeko: puntu 1
- Ahozko komunikazio/poster bakoitzeko: 0,50 puntu
- Mahai-inguru bakoitzeko: 0,50 puntu
- Argitalpen bakoitzeko (lehenengo egilea): puntu 1

- Argitalpen bakoitzeko (beste egile batzuk): 0,5 puntu

Ez da baloratuko atal honetan zehaztu ez den merezimendurik.

i) Informatikako ezagutzak (gehienez, 2 puntu).

3) EUSKARA.

- 2. HE: 17 puntu
- 1. HE: 8,5 puntu

ANEXO I

BASES ESPECÍFICAS QUE HAN DE REGIR EL PROCESO SELECTIVO PARA LA ADQUISICIÓN DEL VÍNCULO ESTATUTARIO FIJO EN LA CATEGORÍA DE TÉCNICO ESPECIALISTA RADIODIAGNÓSTICO DEL GRUPO PROFESIONAL DE TÉCNICOS ESPECIALISTAS SANITARIOS CON DESTINO EN LAS ORGANIZACIONES DE SERVICIOS SANITARIOS DE OSAKIDETZA-SERVICIO VASCO DE SALUD.

1.- DESTINOS OBJETO DE CONVOCATORIA.

1.1.- Son objeto de esta convocatoria los destinos de la categoría de Técnico especialista Radiodiagnóstico del Grupo Profesional de Técnicos especialistas Sanitarios, con destino en las organizaciones de servicios sanitarios de Osakidetza-Servicio vasco de salud, recogidos en el Anexo II. Estos destinos al haber sido ofertados en el concurso de traslados podrán ver modificado su número y características en función de la resolución del mismo.

Asimismo serán objeto de esta convocatoria los destinos que se indican en la base 1 de las bases generales que rigen el presente proceso.

1.2.- De los destinos convocados, se reservan para su provisión por personal discapacitado el 5% que se fijaran en el momento de la determinación definitiva de los destinos ofertables previsto en las bases generales.

2.- REQUISITOS DE LOS ASPIRANTES:

Para participar en el proceso que aquí se regula, los aspirantes habrán de reunir al último día del plazo de presentación de solicitudes, salvo las excepciones que se prevean en las bases generales, debiendo mantener su cumplimiento hasta efectuar la toma de posesión del destino que, en su caso, se adjudique, además de los requisitos exigidos en las bases generales, los siguientes:

a) Estar en posesión o en condiciones de obtener la titulación de Técnico/a Superior en Imagen para el Diagnóstico o equivalente, expedida por el Ministerio de Educación y Ciencia, de conformidad con lo dispuesto en el Anexo I del Decreto 186/2005, de 19 de julio, que regula los puestos funcionales del Ente Público Osakidetza.

b) En todo caso, deberán cumplirse los requisitos del puesto al que se opte, según lo dispuesto en el Decreto 186/2005, de 19 de julio, que regula los puestos funcionales del Ente Público Osakidetza-Servicio vasco de salud, así como cualesquiera otros establecidos por la normativa vigente.

3.- DESARROLLO DEL CONCURSO OPOSICIÓN.

3.1.- Fase de oposición.

Corresponderá al tribunal determinar el contenido de la prueba y su duración. La misma consistirá en la contestación por escrito en el plazo máximo que se fije, de un cuestionario de preguntas que versará sobre la batería cerrada de preguntas que será facilitada por Osakidetza-Servicio vasco de salud una vez finalizado el plazo de presentación de solicitudes.

3.2.- Tras la relación de aspirantes por orden de puntuación prevista en el apartado 14 de las bases generales, los aspirantes deberán aportar, además de la documentación que se relaciona en la base 14.2, la siguiente:

- Fotocopia compulsada o testimonio notarial de la titulación de Técnico/a Superior en Imagen para el Diagnóstico o equivalente, expedida por el Ministerio de Educación y Ciencia, de conformidad con lo dispuesto en el Anexo I del Decreto 186/2005, de 19 de julio, que regula los puestos funcionales del Ente Público Osakidetza.

3.3.- Fase de concurso.

Se valorarán los méritos acreditados, según el baremo de méritos que se acompaña como Anexo III, y que se hubieran alegado en el modelo que hay que cumplimentar en la página web.

4.- PERSONAL AUXILIAR DE ENFERMERIA QUE PRESTA SERVICIOS DE TECNICO ESPECIALISTA CON ANTERIORIDAD AL 14 DE JUNIO DE 1984.

El personal con plaza en propiedad de Auxiliar de Enfermería en Osakidetza-Servicio vasco de salud que viniera prestando servicios de Técnico Especialista Sanitario con anterioridad al 14 de junio de 1984 y que al último día de plazo para la presentación de solicitudes, se encuentre en posesión del título de Técnico Especialista Sanitario de la especialidad correspondiente, podrá participar en el presente proceso selectivo a través de la modalidad de acceso que se establece en este apartado, siempre que, además de cumplir los requisitos generales, a los que se refieren las bases, se encuentre en activo o servicios especiales en su categoría de procedencia en Osakidetza-Servicio vasco de salud.

Quienes deseen participar en la presente modalidad de acceso deberán hacerlo constar expresamente en la correspondiente solicitud. Si por error algún aspirante solicita participar tanto en esta modalidad como en el turno libre, y sin perjuicio de la correspondiente comprobación posterior en la fase de presentación de documentación, su solicitud pasará automáticamente a la presente modalidad, siempre y cuando reúna los requisitos legales para ello.

El personal regulado en este apartado que acceda a la condición de personal estatutario en la categoría de Técnicos Superiores, en sus diversas especialidades sanitarias,

consolidará el destino desde el cual participa en la presente modalidad de acceso, quedando adscrito al mismo de manera definitiva en la categoría de Técnicos Superiores Sanitarios de la correspondiente especialidad.

ANEXO II

RELACIÓN DE DESTINOS CATEGORÍA: TÉCNICO ESPECIALISTA
RADIODIAGNÓSTICO

Conforme a lo previsto en el apartado primero de la base 1.1 de las Bases Generales aprobadas por Resolución 4235/2008, de 28 de noviembre, de la Directora General de Osakidetza, se convocan 20 destinos.

De conformidad con dicha base la determinación definitiva de los destinos ofertables se efectuará con anterioridad a la publicación de la relación de aspirantes que han superado el proceso selectivo.

ANEXO III

BAREMO DE MERITOS DE LA CATEGORIA DE TÉCNICO ESPECIALISTA
RADIODIAGNÓSTICO DEL GRUPO PROFESIONAL DE TÉCNICOS ESPECIALISTAS
SANITARIOS

1) EXPERIENCIA PROFESIONAL (máximo 55 puntos).

Se computará el tiempo de servicios que los aspirantes tuvieran reconocido hasta el último día del plazo de presentación de solicitudes.

Por cada mes de servicios prestados como Técnico especialista en la especialidad de que se trate en las Organizaciones de Servicios Sanitarios de Osakidetza-Servicio vasco de salud, de la Seguridad Social o de los Servicios de Salud de las Comunidades Autónomas o en cualquier Administración Pública, así como aquéllos servicios prestados en los Servicios Sanitarios de la red pública de los demás estados miembros de la Unión Europea: 0,30 puntos.

Del cómputo total, que se efectuará en base a los días naturales trabajados, se desprezará los restos que resulten inferiores al mes. A estos efectos se entenderá por mes el conjunto de 30 días naturales.

Al personal que acceda a través del turno de promoción interna se le computarán los servicios previos conforme a continuación se detalla:

a) Servicios prestados por personal en el grupo E: 0,10 puntos/mes.

b) Servicios prestados por personal en el grupo D: 0,12 puntos/mes.

c) Servicios prestados por personal en el grupo C: 0,19 puntos/mes.

d) Servicios prestados en el mismo puesto al que se opta: 0,30 puntos/mes.

Los servicios prestados en comisión de servicios o desempeño de funciones de superior categoría se computarán en el puesto efectivamente desempeñado.

Asimismo se computarán en el puesto de origen los servicios prestados en situación de servicios especiales.

2) FORMACIÓN, DOCENCIA E INVESTIGACION (máximo 15 puntos).

a) Formación pregrado (Máximo 6 puntos):

Por cada matrícula de honor o sobresaliente durante los estudios de Técnico especialista en la especialidad correspondiente (no se deben considerar como asignaturas valorables: religión, ética, formación política, educación física e idioma):

- por cada matrícula de honor: 0,6 puntos
- por cada sobresaliente: 0,4 puntos

d) Formación continuada (máximo 15 puntos):

Por la asistencia a cursos relacionados con la categoría del destino solicitado:

- Hasta 9 horas: 0,25 puntos
- 10 a 19 horas: 0,50 puntos
- 20 a 29 horas: 1 punto
- 30 a 49 horas: 1,50 puntos
- 50 a 99 horas: 2 puntos
- 100 a 199 horas: 3 puntos
- 200 o más horas: 4 puntos

Cuando en las certificaciones de los cursos conste únicamente el número de créditos, la puntuación será de 0,50 puntos por crédito.

En aquellas certificaciones en las que no conste el mínimo de horas de duración del curso, o la equivalencia de los créditos en horas, o en los que conste tanto el número de horas como el de créditos reconocidos por la Administración Pública que imparta esta formación, el tribunal, a la vista de la certificación aportada y del contenido del curso, asignará la puntuación correspondiente sin que en ningún caso pueda otorgar una puntuación inferior a 0,25 puntos.

Únicamente se valorarán cursos impartidos y acreditados por Organismos Oficiales, Universidades, Instituciones Sanitarias, Colegios Profesionales y Sociedades Científicas, así como los cursos impartidos y acreditados en virtud de los Acuerdos de Formación Continua suscritos por la Administración de la Comunidad Autónoma Vasca, siempre que no formen parte de un plan de estudios para la obtención de una titulación oficial.

e) Actividades docentes (máximo 5 puntos):

Docencia en programas oficiales de formación continuada (por cada 1 hora): 0,025 puntos

f) Actividades científicas y de difusión del conocimiento (máximo 5 puntos):

Por la publicación de trabajos científicos, presentación de ponencias, comunicaciones, conferencias o mesas redondas relacionadas con el puesto funcional del destino solicitado:

- Por cada Ponencia: 1 punto

- Por cada Comunicación oral/Póster: 0,50 puntos
- Por cada Mesa redonda: 0,50 puntos
- Por cada Publicación (primer autor): 1 punto
- Por cada Publicación (otros autores): 0,5 puntos

No se valorarán otros méritos no especificados en este apartado.

i) Conocimientos informáticos (máximo 2 puntos).

3) EUSKERA.

- PL 2: 17 puntos
- PL 1: 8,5 puntos